

noaue



**Kalezarko jaiak
iruditan**

**Tasa berria, Udalaren
lan deialdietan**



**Erasorik gabeko jaien alde:
“Soilik bai da bai”**

ARATZ

zabaleta anaiak
1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA

*Ugartondon pisu berria
erosi badezu eta
lehendik zeneukan etxea
saldu edo alokatu nahi
badezu...deiguzu!*



HIGIEZINA | INMOBILIARIA
688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

begi•bistan

begi-bistan.com

INOIZ EZ DA JAITSIERA BAT HAIN DIBERTIGARRIA IZAN

JEITSI ORIA
SENTITU NATURA
BAKARRIK EDO NORBAITEKIN,
ZUK ERABAKI



657 79 46 77
info@begi-bistan.com



ERRESERBATU
HEMEN

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Albisteak iruditan

Ekaitzak ez zuen itzali Zubietako San Juan bezperako sua

Ia sua piztu ezinik geratu ziren hainbat txokoetan San Juan gauean lehertu zuen ekaitzagatik. Egun batzuk lehenago 40 gradurainoko tenperatura, aspaldiko egunik beroenak izan ostean, denbora tarte laburrean botatako euri zaparradak ordurako atonduak zeuden suen eremuak gogotik blaitu zituen. Garaiz atertu zuen halere eta kostata baina sua piztu eta piztuta mantendu ahal izan zuten, besteak beste, bai Kalezarren eta baita Zubietan ere.

Sugarrak indarra hartu zuenean, busitako eremua lehortu eta ingurua gogotik berotu zuen. Gaztetxoak ere dantza batean jarri zituen suak; batzuk gogotik bota zituzten, itxuraz hilabeteotan ikasketetan baliaturiko apunteak. Zubietako plazan bildutako gehienak suaren bueltan, garrei begira, suaren edertasunaz gozatzen.



Zubietako plaza San Juan gauean sua piztu zutenean, Zubietako Lantzenek deitutako hitzorduan.

Arratsalde pasa eder batetik zetozen zubietarrak, jolasean aritu eta elkarrekin afaltzetik. San Juan bezpera girotua os-

patu dute aurten Zubietan, bertako pilota elkarteko kideen eta Zubietako Lantzenen eskutik.

Laburrean

667,10eko intzidentzia

Hirugarren astez segidan gorantz koronabirusaren intzidentzia Usurbilen, 667,10raino. 17 covid19 kasu berri hauteman ditu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak iragan astean. Koronabirusaren intzidentziaren igoera orokorra izan da bai eskualdean, baita Gipuzkoan ere.

Santixabel eguneko meza

Herriko festetako egun nagusian, aurtengoan larunbatez egokituko den Santixabel egunean, uztailaren 2an honenbestez, eukaristia ospatuko dute Salbatore parrokiaren herriko zaindariaren omenez. Goizeko hamaiketaren hasieratik da meza berezia.

Jakin Jardunaldia ate joka

UEU-ren 50. Udako Ikastaroen baitan, uztailaren 7an eta 8an Usurbilen ospatuko den "EH2040: demografia, lurraldea, zaintza eta hizkuntza" Jakin Jardunaldirako matrikulazioa uztailaren 1ean itxiko dute. Informazio gehiago, ueu.eus atarian jaso dezakezue.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubieda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubieda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Alazne Arruti

Herri kooperatiben loratzea

Gizarte honetan bada zer aldatua eta bartzuetan kosta egiten da nondik hasi ere erabakitzea. Tamaina ezberdinetako erronkak ditugu eta oraindik, haiei heldu baino, elkarri bizkarra astinduz jarraitzen dugu gehienetan. Ez da berria, ez da makala eta egiaz, zerbait aldatu nahi dugunaren seinale da. Baina jarrai dezagun kritiko izaten, eta indarrak alferrik ez ahitzen. Eta hasi gaitezen nonbaitetik, guk ez bada beste norbaitek egin beharko du eta.

Duela urte eta erdi pasatxo, Beñat Irasuegik, artikulua interesgarri bat idatzi zuen Argia aldizkarian, ohi bezala. Komunikazioaren eta Teknologia Berrien arloan aditua da orretarra, eta besteak beste, Olatuko mugimenduko kide ere bada. Artikulu hartan, iragarpen bat egin zuen. Herri Kooperatiben garaia zetorrela zioen, ez zirudiela erraza, baina bazirela proiektuak (Igeldoko IKO Kooperatiba kasu) eta berriak ere bazetozela. Eta gaurkoan, hori berrestera nator.

Zuetako zenbaitek agian, ez du Herri Kooperatibak zer diren irudikatuko. Eta ez da harritzekoa, norberaren beharretik identifikatu ezean, definitzeko lausoa den kontzeptua dela esatera ausartuko bainintzateke. Baina zorionez, ekintzaile-



Igeldoko IKO kooperatiba. Argazkia: Irutxuloko Hitza.

ALAZNE ARRUTI

“Bertako ekonomia sozialeko agenteak, herritar talde antolatuak eta eragile publikoek, elkarlanaren bidez, helburu komun baten baitan biltzen dituen kooperazio mota litzateke”

tza sozialean diharduten eragile eta norbanakoek, kontzeptu honen mamia osatu eta elikatze lanetan jarraitzen dute (<https://etzi.pm/2021/01/herri-kooperatibak/>). Eta horri esker irudikatu genezake gero eta errazago ideia hau. Izatez, forma juridiko zehatz bat ez duena. Malguta eta beharren arabera egokitu baitaiteke. Plataforma bat ere ez dena, baina baduena zerbait haren izaera eta izateko arrazoitik. Udala ordezkatzeko baliabide bat ere ez dena, baina

baliatu daitekeena, zerbitzu publikoak birformulatu eta indartzeko tresna gisa.

Beraz finean, auzo, herri edo eskualde batek beharrezko dituen zerbitzuak eskaintzeko herri egitura moduan definitu genitzake figura hauek. Eta bertako ekonomia sozialeko agenteak, herritar talde antolatuak eta eragile publikoek, elkarlanaren bidez, helburu komun baten baitan biltzen dituen kooperazio mota litzateke. Beraz, bada zer eginik, antolaketa eredu hau baliagarria izan dadin. Helburu ekonomikoetan oinarritu daitekeen arren, inguruaren saretze eta elkar ulertze osasuntsu bat behar baitu oinarrian.

Akaso, oraindik nekez irudikatu dezakezue tresna hauen beharra. Beraz, hemen doa kokatzeko kasu bat. Demagun, 500 biztanle azpiko herrigune batean bizi zarela. Udalarekiko menpekotasun handia

izanik ere, bertako baliabide minimoak bermatzeko zailtasunak jasaten dituen denboran zehar. Fisikoki erdigunetik bereizita dagoena. Garai batean, lehen sektore indartsu eta oparo batean sostengatzen zena. Ibaia eta lurra bizimodutzat izanik, ahalmen ekonomiko esanguratsu bat izan zuena. Herritarrei zerbitzu bikain eta kalitatezkoa ematen zien familia batek kudeatzen zuen denda bat izan zuena. Irekita mantentzea kosta egiten den taberna bat duena. Herri Eskola publiko bat iraurarazi duena, zailtasunei aurre eginez. Eta gainbeheran doana, abiada esanguratsuan. Besteak beste, zahartze tasa handia duen populazioa izatera heldu delako, etxebizitza nahikorik ez eta gazteak kanpora joan beste aukerarik ez dutena. Eta auzolanean jardun izan duena aspaldidanik. Bada, arazo hauei erantzuna emateko tresna bizi eta herritar bat litzateke Herri Kooperatiba bat. Eta batek daki, klima aldaketaren eragina are eta nabarmenago den honetan, bero olatu jasanezin eta muturreko egoera hauen artean; pandemia eta osasun larrialdi artean, noiz eta zein modutan jarraituko duten loratzen Herri Kooperatibek. Baina etorri badatozela esatera natorkizue. Beraz, adi ibili, eta ekin eraldaketari.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapiain

Luis Aranalde

Komikia



Tasa, Udalaren lan deialdietan

Usurbilgo Udalak maiatzean berri eman zuen moduan, ezinbestean bete beharreko Espainiako Egonkortze Legea tarteko, Usurbilgo Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak 26 lanpostuko Lan Eskaintza Publikoa onartu zuen, “administrazio publikoko lanpostuen behin-behinekotasun tasa jaisteko”. Udalak 2024. urtea amaitu arteko tarte du, prozesu guztiok amaitzeko.

10 euroko tasa

Datozen bi urteotan beraz, lan eskaintza publiko honen harira, udaletxean “ohi baino lan bolumen handiagoa” izango duela aurreikusten du udal gobernu taldeak, deialdiotan izen emate masiboak izan daitezkeelako. Horren harira, deialdiotara aurkezteko asmoa dutenentzat 10 euroko tasa bat ezartzea onartu dute. Administrazioan, hainbat erakundeek ohituraz ezarritako neurria da. Usurbilgo Udalak bi urteotan, lan eskaintza publiko honi lotutako kudeaketa amaitu arte izango du indarrean. “Ohiko lan bolumenera itzultzean kentzea aurreikusten dugu”.

Helburu bikoitza

Tasa honekin helburu bikoitza bete nahi dute; batetik, lan bolumen gehigarri honek eragindako kostuak “neurri txiki batean arintzea”. Eta bestetik, lan eskaintza publiko honetara “benetan interesa duen jendea aurkezte” sustatzea.



Hilaren 23an egin zuten ekaineko udalbatzarra.

USURBILGO UDALA

“Deialdiotara aurkezteko asmoa dutenentzat 10 euroko tasa bat ezartzea onartu dute.

Administrazioan, hainbat erakundeek ohituraz ezarritako neurria da”

Tasa hau ordaintzen dutenen kasuan, norbere egoeraren arabera, hobariak jasotzeko aukera izango dute.

Proposamena gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak osteguneko osoko bilkuran, EHBildu eta PSE-ren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu zen.

Harrera

Harrera elkarteak orain arte Etumeta AEK euskaltegiak duen egoitzako bulegoetako batean egoten jarraituko duela berretsi zuen udalbatzak ekainaren 23ko osoko bilkuran. 2018an euskaltegi-

ko bulegoetako bat prekarioz lau urterako lagatzea onartu zuten orduko udal ordezkariak. Lau urteko epea ekainaren 28an agortuta, lagapen hau beste lau urtez luzatzea onartu dute aho batez. Erabakia bozkatu aurretik udal ordezkariak hitza hartzeko izan zuten aukeraren baitan, PSE-ko ordezkari Patxi Suarezek babesa adierazi zion proposamenari. Elkartearen zenbait punturekin bat ez datorrela adierazi zuen, baina “birgizarteratzean sinesten dut” esanez erabakiari babesa adieraziko ziola iragarri zuen.

Lan integrazioan laguntzen

Harrera Taldea, elkarte asistentziala da. “Euskal Herrian dagoen gatazka politikoaren ondorioz, bere helburua kartzelaratu edo erbesteratu egon, eta askatasuna berreskuratu duen pertsona ororen lan integrazioan laguntzea da”.

Udako ordutegian

Euskotren

Usurbil zeharkatzen duen zerbitzua indartu egingo dute udako asteburu eta jaieguneetan. 30 minuturo izango da tren zerbitzua. Informazio gehiago: euskotren.eus/ 944 333 333.

Bus-taxia

Uztailaren 4tik 29ra indarrean izango du udako ordutegia (uztailaren 1ean eta 25ean jai). Orduotan eskainiko du zerbitzua: 7:30-8:40, 10:30-11:40 eta 13:30-14:30 artean. Abuztuan etenda egongo da eta irailaren 1etik aurrera ohiko ordutegira itzuliko da. Informazio gehiagorako: 630 643 596.

Sutegi udal liburutegia

Irailera arte 9:30-14:00 artean irekiko dute lanegunetan. Uztailako astelehenetan 17:00-19:00 artean ere bai. Urrira arte itxita egongo da larunbatetan. Informazio gehiago: biblioteca@usurbil.eus/ 943 360 693 / Irazu, 14 / 688 625 477 (whatsapp zerbitzua).

Oiardo Kiroldedia

Uztailan eta abuztuan udako ordutegia izango du indarrean: -Lanegunak: 7:00-13:00/15:30-20:15.

-Larunbatak, igandeak eta jai egunak: 9:00-13:00.

Igerilekua 15 minutu lehenago itxiko dute.

Informazio gehiagorako:

943 37 24 98

Kzgunea

Uztailaren 29ra arte 16:00-20:00 artean zabalduko dute.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Praisku Aranburu: “Bizi-kalitatea oso altua da Amerikako Estatu Batuetan”

Hilabete gutxi batzuk baino ez daramatza Praisku Aranburu herriarrak Chicagon, baina bertara iritsi aurretik Houston eta Shanghain ere egin zituen urte batzuk. Bolada luzea darama etxetik kanpo. NOAA!rekin partekatu nahi izan ditu hainbat bizipen.

NOAA! Zerk eraman zintuen Chicagora?

Praisku Aranburu: Chicagon nago urtariletik, baina Estatu Batuetan jada bi urte daramatzat. 2020. hasieran Houstonera iritsi nintzen, Texasera. Bi urte eman nituen bertan eta ondoren bulegoa Houstonetik Chicagora ekarri genuen eta ni ere harekin etorri nintzen. Lanak ekarri ninduen hona. Danobat Elgoibarko enpresarentzat lan egiten dut makina-erremintaren sektorean.

Aurretik Shanghain izan nintzen bost urtez lanean enpresa berarentzat. Itzultzekoa nintzela Estatu Batuetara etortzeko abentura proposatu zidaten pandemia hasieran eta Houstonera etorri nintzen. Jada 8 urte daramatzat kanpoan.

Enpresa ereduak askotarikoak dira. Elgoibarko enpresa barentzat lan eginda, hemengo



“Aurretik Shanghain izan nintzen bost urtez lanean. Itzultzekoa nintzenean, Amerikako Estatu Batuetara joateko abentura proposatu zidaten eta Houstonera etorri nintzen. Jada 8 urte daramatzat etxetik kanpo”.

PRAISKU ARANBURU

“Danobat Elgoibarko enpresarentzat lan egiten dut makina-erremintaren sektorean”

metodoak jarraitzen dituzue edo hango enpresa ulerkerara moldatu duzue zuen lan egiteko modua?

Etxeko bera jarraitzen saiatzen gara, baina amerikarrekin lan egiten dugu. Taldean 20 bat amerikar ditugu eta haiekin lan egiteko modua antzekoa da. Lana lasaigo hartzen dutela esango nuke nik, ez dira gehiegi estresatzen. Gauza gutxiarekin estresatzen dira hemen. Kultura oso ezberdina da, eta nolabait moldatu egin behar da horretara ere.

Azken urte hauetan leku as-

kotan egon zara eta horrek bidaizteko aukera ere emango zizun.

Urte asko dira eta ni oso bidaia-ria naiz. Asia ondo eza-gutzeko aukera izan nuen. Gustukoenak esan beharko banitu Filipinak eta Myanmar esango nituzke. Jende gutxi du Myanmar bisitatzeko auke-
ra eta oso leku berezia da.

Estatu Batuek maitale asko dituzte, baina baita gorroto dituztenak ere. Kulturarik ez izatea egozten zaie sarri.

Kultura maila nahikoa baxua dute orokorrean. Estatu Batuek kanpo ez daukate mundu zabalari buruzko ideiarik ere. Nongoa naizen galdetzen didatenean, ez dut behin ere Euskal Herria esaten, ez dutelako ezagutzen. Hala ere, Espainia ere ez dute ezagutzen. Espainia esan eta Mexikoren alboan ote dagoen galdetu izan didate. Oso herrialde aurreratua ere bada, hori aitortu behar zaie. Bizi-kalitatea oso altua da. Hiri handiak daude jendez lepo eta etxe-orratzez josita eta denak autoz ibiltzen dira edonora joateko. Oso erraztutako bizitza daramate, dena eginda ematen diete. Oso eroso bizi dira orokorrean, eta horrek abantailak eta desabantailak ditu.

“Hemen ondo eta osasuntsu jatea oso garestia da”

Jateko ohiturei dagokienez, janari azkarra baino ez omen da jaten Chicagon.

Hemen ondo eta osasuntsu jatea, kalitatezko elikagaiak kontsumitzea, oso garestia da. Jende asko dago jaki mota hauek erosterik ez duena eta beraz, fast food edo janari azkarra jaten duena. Fast food hori oso merkea da, 3-4

dolarren truk hanburgesa bat jateko nahikoa da. Supermerkatu batean, diru horren truk ezinezkoa da fruta edo barazkiak erostea. Euren bizimodua horrelakoxea da. Ni zaintzen saiatzen naiz, bai baitakit behin txerrikeriak jaten hasita oso erraza dela gizentzea. Erosketak egin eta etxean jaten dut ghehienetan, baina asteburuetan

kanpoan egiten ditut otorduak.

Harroputz eta diruzaleak ere ba omen dira.

Bai, eta are gehiago, faltsuak ere badira edo oso azalekoak bai behintzat. Faltsuarekin esan nahi dut aurpegi ona jartzen dutela beti eta tratua ahalik eta onena izango da, baina barnean ez daukate gogorik

gurekin egoteko. Jatorregia ere ez zara izango haienentzat, baina zure aurrean gizarte osoa beti atsegin izango da gainontzekoekin. Beraz, faltsukeria puntu hori badute. Oso zaila da jakitea noiz ari diren benetan zurekin gogoia daukatelako harremantzen. Itxurakerian oinarritzen da beren gizartea.

“Chicago oso hiri hotza da. Negua oso-oso gogorra da hemen”

NOAUA! Atzerriko abentura hauek hasi aurretik nolakoa zen zure ingeles maila eta nolakoa da gaur egun?

Praisku Aranburu: Ingelesari txikitatik eman nion garrantzia handia eta hizkuntzarekin ez daukat inolako arazorik ulertzeko eta hitz egiteko. Ohituta nago jada. Behin ingelesa hitz egiten hasita, kosta egiten zait beste hizkuntzetan ondo adieraztea. Momentu batean gaztelarrera jo behar badut, *spanglish* deituriko hori egiten dut; gaztelera ingelesarekin nahasten dut nahi gabe. Euskararekin momentuz ez zait horrelakorik gertatu eta eskerrak.

Zer moduzko hiria da Chicago?

Chicago oso hiri polita da. Estatu Batuetako hiririk politenetarikoa dela esango nuke New Yorkekin batera. Hala ere, hiria txikiagoa da eta jendea jatorragoa New Yorken baino. Lakua baukagu hemendik oso gertu, eta nahiz eta itsasorik ez izan, lakuak betetzen ditu haren funtzioak hondartza gosea dutenentzat. Chicagok akats bakarra du: oso hiri hotza da. Negua oso-oso gogorra da hemen, haizetsua. 15 gradu zero azpitik eman genituen egun batzuk, eta hilabeteak 5 gradu



“Aurreko udazken-neguan hilabeteak egin genituen 5 gradu zero azpitik igo gabe”.

PRAISKU ARANBURU

“Amerikako Estatu Batuetan Covid neurriak ez dira horren gogorrak izan”

zero azpitik igo gabe. Elurra eta haizea nagusi izaten dira, eta -30 gradu egiteko sententzia ere izaten da. Uda, berriz, ona da. Eguraldi ona egiten du eta epela. Hiria goitik behe- ra aldatzen da negutik udara.

Jendea zain egoten da uda noiz iritsiko, festibalak egiteko. Oso hiri dinamikoa da. Klima da ezberdintasunik handiena.

Pandemia garaian tokatu zaizu hiriz aldatzea.

Pandemiak Houstonen harri- patu ninduen, Texasen. Bi urte horiek Estatu Batuetan pasa beharrak uste dut alde onak eta txarrak izan zituela. Konfinamenduaren ondorioz, ordu eta egun asko pasa behar izan ditut bakarrik. Lagunak eta

familia urrun edukitzea oso gogorra da horrelakoetan. Europarekin alderatuta hala ere, Covid neurriak ez dira horren gogorrak izan Estatu Batuetan. Kontua da askatasun indibidualen aurka ezin dituztela le- geak egin, eta beraz, neurriak gomendio baino ez dira izan. Konfinatuta egon ginen denbo- ra dezente, hori bai.

Texas errepublikarra izanda, neurriak jartzea ez da erraza eta Chicagon baino askatasun handiagoa geneukan.

“Txuletarekin eta sagardoarekin munduko pertsonarik zoriontsuena naiz”

NOAUA! Denbora asko dar- mazu kanpoan. Zer da Eus- kal Herritik faltan botatzen duzuna?

Praisku Aranburu: Familia eta lagunak, batez ere, eta nola ez sagardotegiak. Txuleta eta sagardoa hartuta munduko pertsonarik zoriontsuena

naiz. Hemen badago haragia, baina ez dakite behar bezala prestatzen.

Bi urte eman ditut etxera joan gabe pandemiaren ondo- rioz, eta laneko bisatua dauka- danez, ez ziguten Estatu Ba- tuetan sartzen uzten kanpora joanez gero. Gabon hauetan

itzuli naiz lehen aldiz bi urtean eta bisita gehiago egiteko as- moa daukat orain.

Esperientzia honek ere amaie- ra data izango du. Hurrena atzerrian beste aukera bat ematen badizute kanpoan ja- rraituko duzu edo etxera itzu-

liko al zara?

8 urte kanpoan eman ondoren, etxera itzultzeko asmoa eta gogoia baditut. Esperientzia oso aberasgarria da kanpoan bizitzea, baina etxean bezala leku gutxitan bizi gaitzeko. Nire asmoa itzultzea da be- randu baino lehen.

Jaien itzulera, herritarren ahotik

Hainbat herritarrentzat ia hiru urte itxaronako egunak iristear dira. Pandemiak harrapatutako urteotan, Santixabelak ohi bezala ezin ospatu izan direnez, askok irrikitan hartuko dute aurten betiko jaietako egitaraua.

Gazte askorentzat gogorrak izan dira azken bi urte hauek, parrandan hasteko adina iritsi eta pandemiak ia 3 urte luzatu die itxaronaldia. “Gogotsu gaude jaietarako. Gure lehen parrandak izango dira hauek eta gazteen zirkulu horretan sartuko gara”, jakinarazi du Izaro Arruti gazteak. Pandemia leheritu zenean, oraindik 15 urterekin harrapatu zituen Izaro Arruti eta Nahia Azpiazu lagunak eta luze egin zaie jaietarako itxaronaldia. “Azken Santixabeletan gazte txoak ginen oraindik parrandarako, ordubiak arte edo geratzen ginen. Urte arraroak izan dira hauek eta orain, umeen zirkulutik atera eta gazteen zirkulu horretarako jauzia oso bat-batekoa tokatu zaigu. Normalean, trantsizio hori lasaiago egiten da”, esan du Nahia Azpiazuk.

Alderantzizko prozesua

Batxilerreko lehen urtea amaitu berri dute eta tabernetako gau giroa zertxobait ezagutzen hasi dira. “Normalean, herriko festetan hasten dira gure adinekoak gau giro horretan sartzen, baina guri pandemiaren garai hau tokatu zaigu eta prozesua bestelakoa izan da: tabernetatik hasi eta herriko jaietara ondoren”, azpimarratu du Azpiazuk. Jaietarako gogo badutela aitortu dute, eta jarduera askotan parte hartzeko



Usurbil, jaien itzulerarako girotua.

IZARO ARRUTI “Gogotsu gaude jaietarako. Gure lehen parrandak izango dira”

asmoa dutela: gazte bazkaria, oilasko biltzaileak, kontzertuak... Halere, prest daude txosnetan ere laguntzeko. “Arratsalde batzuetan txosnan egoteko ardura hartu dugu lagun taldekoek. Laguntzeko prest agertu ginen eta ahizpa antolakuntzan dabilenez, ordutxo batzuk eman dizkigute probatzeko”, jakinarazi du Azpiazuk. Gogorik ez dute falta bi neskek eta jai giroa lehertu zain dira. “Sagardo Egunerako gogo biziz geunden eta itxaropen handiak geneuzkan jarrita izugarritzko jaia izango zelakoan. Izugarria izango zelakoan eta uste baino hobeia izan zen. Ea Santixabeletan ere gauza bera gertatzen den”, ondorioztatu du Arrutik.

Gazteez gain, tabernariak ere gogo biziz daude Usurbilgo jaiak eta horrek dakarren jendea hartzeko. Haritz Rekondo Aitzagako tabernariak urtebete darama bertan lanean, joan zen urteko Santixabeletatik. Pandemiaren alde ilunak eta orain itzuli diren normaltasuna

ezagutzeko aukera izan du eta festetarako gogotsu dago. “Joan zen urtean, Aitzaga jende askorentzat ihesbide izan zen, baina neurriak errespetatu behar genituen, ezin izan zuen nahi beste jendea aprobetxatu”, esan du Rekondok.

Jai giro ederraren esperoan

Aurtengo jaiak normaltasunez ospatuko direla uste dute, baina oraindik ez daukate argi “inoizko jairik jendetsuenak” izango diren, baina politak izango direla uste dute. “Sagardo Egunerako aurreikuspenetan gehiegizko jende masa ibiliko zela espero genuen, baina gero oso ondo joan bazen ere, ez zen izugarritzko eromen berezirik izan. Oso ondo joan zen egun hura eta oso positiboki ikusten dugu, baina eguna iritsi aurretik tabernara lanera joan beharrean, gerrara joateko prestatu ginen badaezpada ere”, adierazi du Aitzagako tabernariak.

Txosnak lasaitu zuela gehiegizko masa, hori uste dute tabernan, banatu egin zela jendea txosna eta tabernetan. Txosnaguneak ere garrantzia handia izaten du jaietan, euskal gizarte oso txosnazalea

izan baita beti edo behintzat oso ondo funtzionatu izan baitute. Jaietan ere banaketa hori egongo dela uste dute, inguruko herrietako jaietan izan duten arrakasta ikusita eta jai giro ederra sortzea espero dute herriko txoko guztietan.

Bazkaritara lehen aldiz

Helduenek ondo maite dituzte festen azken igandean osatu ohi diren jubilatuen ekimenak.

Egun horretan, herriko jubilatuek egun osoko parranda izaten dute goizeko jokoekin hasi eta bazkari jendetsuarekin jarraituta. “Bazkaria jendetsua izango da urtero legez. Niretzat lehen aldiz izango da parte hartzen dudana, pandemia aurretik jubilatutako gabe bainengoen”, esan du Juan Mari Bordak.

Bi urte pandemiaren ondorioak bizitzen egonda, Bordaz gain, herritar gehigo ere hurbildu dira Gure Pakea Elkartera, eta egun handietan hori nabari izaten da. Santixabeletan egun handia izaten dute jubilatuek. Aurten, berrikuntza batekin dator gainera, dantzaldia eskainiko dute jaien azken eguna boro-biltzeko. “Dantzaldia proposatu dute eta ni ere hasiera batean probatzera joatekoa nintzen, baina azkenean ez parte hartzea erabaki dut”, jakinarazi du Bordak.

Taldean gizon gutxi daude, baina herritarrek ere gonbidatuta daudenez parte hartzea, joera hori alda liteke. Dantzaldia amaitu ondoren, ordu gutxi beranduago esango die Usurbilek agur, aurtengo Santixabel jaietarako uteroko trakarekin.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Ehunka urrats solidario, 2. Uxue Trail-ean

Bero itzela izanda ere, 534 partaide erakarri zituen ekainaren 18an ospaturiko 2. Uxue Trail Mendi Lasterketa solidarioak, tartean hainbat herrikide. “Berririo hitzik gabe” utzi du anto-

lakuntza, “haur hauengatik egin dena eskertzeko”. Horregatik, “Phelan-McDermid familiak eta Uxue-ren familiak bereziki, esker-rak eman nahi dizkizuegu guztioi, musutruk egin-

dako guztiagatik”. Uxue Martin Usurbilgo gazteak eta beste hainbatek duen gaixotasun arraroaz sentsibilizatu eta ikerketarako laguntza biltzea xede duen ekimen honi esker,

“orain syndrome hau apur bat ezagunagoa da, eta zuen laguntzarekin ikerketa-proiektuak babesten jarraituko dugu haur horien eta haien familien bizitza hobetzen saiatzeko”.



Guztiok parte hartzeko moduko lau lasterketa ezberdin ospatu ziren ekainaren 18an. Irudi gehiago noaua.eus atarian.

Mafer Carazas: “Parisko Joko Olinpikoetara joatearekin amesten dut”

Mafer Carazas Usurbil Judo Taldeko kidea da. Gaztetan hasi zen nabarmentzen eta bera baino nagusiagoak zirenekin lehiatzen jarri zuten. Lesioek ordea, ez diote bake handirik eman orain arte.

NOAUA! Judoka zara. Nondik dator kizua tatamirako joera?

Mafer Carazas: Ni Perun jaio nintzen eta 8 urterekin iritsi nintzen Usurbilera. Perun karatea praktikatzen nuen, ez baitzegoen judoa egiteko aukerarik. Behin hona iritsita, ikusi nuen hemen Oiardo kiroldegian judoa praktikatzen zela, eta hasieran karatea zela uste banuen ere, izena eman nuen. Informazio orrian karatearen oso antzeko jantzia ikusi nuen eta gauza bera zela pentsatu nuen. Behin izena eman ondoren, probatzera animatu nintzen. Esteban Arrillagarekin eginiko lehen klase hura asko gustatu zitzaidan. Amari esan nion gustukoa nuela eta 9 urterekin hasi nintzen judoan. Gaur arte.

Judoak ahalegin fisiko handia eskatzen du. Ondo neurtu beharko dira indarrak. Astero zenbatean entrenatzen duzu?

Entrenatzaileak eta biok entrenamenduak antolatzen ditugu. Lehiarik ez dagoenean oso maiz



“Duela bi urte ebakuntza bat egin zidaten sorbaldan eta orain ezkerreko belauneko lesiotik errekupeztatzen ari naiz”.

MAFER CARAZAS

“Txapelketetan bakoitzak duen onena ematen du, baina txapelketatik kanpo lagunak gara denak”

entrenatzen dugu. Hiru asteko epean txapelketaren bat izango balitz, lehen bi asteetan oso entrenamendu gogorak egingo genituzke. Azken astean berriaz, maila jaitxi egingo genuke lesioak ekiditeko eta pisua zaintzeko.

Gainontzean, bi orduko lan

fisikoa egiten dugu goizetan, eta arratsaldetan judoan aritzen gara bi orduz. Salbuespenak ere badaude. Larunbat goizetan entrenamendua izaten dugu beti, fisikoa lantzeko. Federazioarekin entrenamendua tokatzen bada, igandeetan Tolosara joaten gara entrenatzera. Azken hau ez da oso ohikoa izaten. Laburbilduz, gure entrenamenduak astean zehar lau ordukoak izaten dira egunero, eta larunbatetan bi ordukoak.

Lesioak dira kirol jardueraren aurpegi itsusiena. Lesio asko izan dituen kirolaria zara ala

gene onak al dituzu?

Zoritxarrez, lesio asko izan ditut. Lesio txikiak izan dira gehienak, baina potoloagoak ere izan ditut. Nahiko ahula naiz ikuspuntu horretatik eta askotan izaten ditut lesioak. Gogorrrena sorbaldako lesioa izan zen. Duela bi urte ebakuntza egin behar izan zidaten eta orain gutxi ezkerreko belaunean egin didate beste ebakuntza bat.

Baina zorionez, fisikoki ondo nago eta errehabilitazio garaian igartzen da hori, azkarra eta hobeto osatzen naizelako. Edozein pertsona baino azkarrago sendatzen naiz.

“Judoan oso zaila izaten da irabaztea”

NOAUA! Txapelketetan lehiakortasun handia dago judoken artean ala lagun giroan aritzen al zarete?

Mafer Carazas: Judoan pisua araberako mailak daude; bai gizonezkoen kasuan, bai

emakumezkoen.

Hori esanda, denok ditugu helburu antzekoak. Gaitasunak baditugu baina oso zaila izaten da irabaztea.

Espainiako selekzioan adibidez, urte asko daramatzagu

kirolari berdinok. Gure arteko harremana sendoa da. Nik Espainiako Judo Federazioan urte asko daramatzat eta lagun ugari egin ditut, eta oso onak.

Baina kirolariok beti esaten dugu helburu berdinak

dituzten bi emakume garelako tatami barruan. Irabazten saiatuko gara biak. Txapelketetan bakoitzak duen onena ematen du, baina txapelketatik kanpo lagunak gara denak.

“Esteban Arrillaga entrenatzaile bat baino gehiago izan da nire ibilbidean”

NOAUA! Urte batzuk egin dituzu judoan. Zein izan da orain arte lortu duzun markarik onena? Eta epe erdira, zein da zure helburua?

Mafer Carazas: Esteban Arrillag (entrenatzaileak) eta biok orain arte lortu dugun lorpenik handiena 2018ko Espainiako Txapelketan izan zen, brontzeko domina. Ordutik hona domina eta lorpen gehiago ere iritsi dira, baina guretzat hura berezia izan zen, jubeniletako lehen urtea nuelako eta oso gaztea nintzelako maila hartarako.

Gainontzeko judokak ni baino askoz zaharragoak ziren eta oso maila altua egon zen urte hartan pisu guztietan. Ez genuen batere espero maila gorenean halakorik lortzea. Jubeniletan lor nezakeen zer-bait zen, baina absolutuan horren maila ona ematea ez genuen espero. 25 eta 26 urteko jendeari aurre egin eta horren itxura ona ematea zoragarria izan zen.

Geroago, Europako Kopan 7. postua lortu genuen, bosgarrena ere bai, eta irteera asko egin ditugu Espainiako selekzioarekin. Aukera asko izan ditugu nazioarte mailako entrenamenduetara joateko, bai eta ziklo olinpikoan entrenatzeko ere, 10 bat egunez. Belauneko lesioaren aurretik maila gorenean geunden eta aukera pila bat sortu zitzaizkigun Europako 21 urtez azpiko txapelketa, adibidez.

Ebakuntzaren ondorioz, muzin egin behar izan nien aukera askori. Gainontzean, Gipuzkoa, Euskadi eta Espainia mailan oso txukun ari gara. European orain hasi gara muturra sartzen. Pariseko 2024ko Olinpiar Jokoak ditugu jomugan, eta 2024ko hitzordurako prest ez bagaude, 2028ko Los Angeleseko Jokoetan parte



“Etorkizunean judoari lotuta egongo naiz; dela judoka, dela epaile, dela entrenatzaile lanetan”.

MAFER CARAZAS

“Judoa bakarkako kirola da, baina atzetik talde handi baten lana dago”

hartzen saiatuko gara Esteban eta biok.

Zure jardueran, zer nolako garrantzia izan dute entrenatzaileek?

Nire ibilbide pertsonalean zein nire kirol ibilbidean, Esteban Arrillaga entrenatzaile bat baino gehiago izan da. Nire aita bezalakoa. Alboan izan dut, errieta egiten nahiz gomen-dioak ematen.

Beti dago nirekin kirol arloan zein arlo pertsonalean. Oso pertsona garrantzitsua da nire bizitzan eta bere emaztea ere berezia da. Judoa bakarkako kirola da, baina atzetik talde handi bat dago. Usurbil Judo Taldeak dominetan garrantzia handia du, haien gogo, ahalegin eta animorik gabe sekula ez nituen lortu ditudan lorpenak eskuratuko.

Niregatik ahalegin handia egiten dute egunero entrenatzera etortzeko, txapelketetan laguntzeko eta nire lorpen guztietan gertu egoteko. Familia handi bat gara eta Esteban Arrillaga ezinbestekoa da nire bizitzan.

Usurbil Judo Taldeak izen handia du Euskal Herrian eta Euskal Herriatik kanpo, ezta?

Espainian eta European Usurbil Judo taldeak domina asko irabazi ditu. Oso nabarmena da taldearen izena. Kanpoan ere oso ezaguna da. Eskuratutako lorpenak esanguratsuak dira eta lanak jarraikotasun bat izan duenez, taldeak ospe horri eusten dio. Oso garrantzitsua iruditzen zait hori eta Usurbil-lentzat ere ederra da horrelako ospea lortzea. Beharrezkoa da izena denen ahotan egotea.

Etorkizunean, kirolari lotuta ikusten duzu zure burua?

Psikologia ikasten ari naiz, psikologia klinikoa. Oso gustura nago. Azken urtean naiz eta hilabete gutxitan amaituko dut. Master bat egingo dut ondoren, psikologia klinikoari jarraiki. Etorkizunean judoari lotuta egongo naizela uste dut; dela judoka, dela epaile, dela entrenatzaile lanetan...

Orain Esteban Arrillagarekin batera umeak entrenatzen ditut, eta oso gustura aritzen naiz. Pare bat urte daramatzat horretan. Harreman hori beti mantenduko dut kirolarekin, eta nola ez, judoarekin.

Laburrean

“Abesti bat? Sarri sarri”

1. Zenbaki bat.
8.

2. Kolore bat.
Urdin argia.

3. Kirolari bat.
Daria Bilodid judoka.

4. Tatami bat.
Oiardo kiroldegikoa.

5. Pelikula bat edo telesail bat.
Tres metros sobre el cielo.

6. Liburu bat.
Cielos de azafrán
(Lesley Lokko).

7. Abesti bat.
Sarri, Sarri (Kortatu).

8. Sare sozial bat.

Instagram.

9. Usurbilgo txoko bat?
Laurok-en ondoko plaza.

10. Santixabelak ala Sagardo Eguna?
Santixabelak.

11. Oporretarako toki bat?
Maldiva uharteak.



Zuriko eta Xapi



Hona hemen gure bi laguntxo: ZURIKO zakurra eta XAPI katua. Bete itzazu sudokuen hutsuneak, bi izenak osatzen dituzten hizkiez (seikoan Z, U, R, I, K eta O, eta laukoan X, A, P eta I). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Zeeer?! Bide batez, ezaba itzazu WAV, YNQ eta JUF guztiak eta zakur-katuok zer esaten ari diren ulertuko duzu.

Handitik txikira

Ordena itzazu inurri eta madalena hauek, handienetik txikienera, 1etik 7rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienerari 7).



Badunk





Itzala

Erreka harririk harri igaro nahi duen turista honek zein du itzal zuzena?

Hamahiru



Beno, beno, beno, hori da abere pila! Eta gidariek ez al dute arriskurik ikusten?! Nolanahi dela ere, aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.

DOMINOAN

Garaian garaikoa. Domino hau ekainean azoketan ikusiko ditugun sei gaiez egin dago. Honokoak dira: ziazerba edo espinaka, angurria, marrubia, gerezia, brokolia eta piperra. Marraztu hutsunetan falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Jai giro bizia Kalezarrera bueltan



Kalejiran, jolasean edota suaren bueltan ospatu dituzte Kalezarko San Joanak lau egunez. Giro ederrean, bistan denez.

Auzotarrak Kalezarko jaien erdigunean



Belaunaldi ezberdinetako auzotarrak erdigunean jarri dituzte San Joanek. Iragan asteko jaiei lotutako irudi bilduma noaia.eus atarian duzue.

Musikari eta abeslarien lana plazaratu duen ZumartEgunarekin, agur ikasturteari

Aurreko urteetako ikasturte amaierako emandako astea, “ZumartEguna” ekimenak ordezkatu zuen ekainaren 18an. Musika eskolako abeslari eta musikariak plazaratu zituen hitzordua egun osoz. Zumarten urtean zehar bideratzen duten lanketa ezagutu eta herrian dugun kultur altzor ederraz gozatzeko aukera eskaini zuten belaunaldi ezberdinetako herrikide anitz biltzen dituen eskolak. Rock taldea, eskusoinu joleena, abesbatzak, musika txokokoak, trikitilari eta panderojoleen taldea... Ahots eta doinu eskaintza zabala txalotu zuten herritarrek egun osoz.



Trikitilari eta panderojoleen taldeak ZumartEguna ekimenaren baitan herrian barrena egin zuen kalejira.

Herri sorkuntza aberatsaren erakusleihoa



Usurbilgo musikari eta abeslarien kabia handia da Zumarte, ekainaren 18an argi utzi zutenez. “ZumartEguna” ekimeneko irudi sorta noaue.eus atarian.



Naturkon Gipuzkoa

Aldundiak basoak abandonatu ditu guztion diruarekin

Berriki, ekainaren 9an, Gipuzkoako Foru Aldundiko ahalduen nagusiak (Markel Olano) eta Jabier Larrañaga, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Diputatuak agerraldia eskaini zuten Donostian, Basotik Fundazioa aurkezteko. Arantxa Ariztimuño, Mendietako eta Natura Ingurunekeo zuzendari nagusia ere bertan zen antza, hitza hartu ez bazuen ere.

Fundazio hau Aldundiaren % 100eko partaidetzarekin jaio da, 2 milioi euroko aurrekontuarekin. Aldundiak ekimen honetarako gizarte eragileak kontuan hartu dituztela dio, noski, lur-jabeak eta enpresak, ekologistak eta natur kontserbazionistak ez gaude eta, euren agendan.

Agerraldian esandakoaren arabera: “Fundazioa, basoen kudeaketa integralaz arduratuko da: landaketa, garbiketa, eraldaketa, egur eta produktuen merkaturatzea”. Argi dago bada, ez direla basoez ari, zuhaitz-landaketez baizik. Ez dute, gainera, ezkututzen; Jabier Larrañagaren hitzetan, “abandonatutako edo gestiorik gabeko basoen kopurua egun %16 da eta errealtate hori frenatu” nahi dute, naturalizatzen ari diren basoak egurrerako landaketa bihurtu, alegia.

Fundazio hau lur-jabe pribatuen baso-sailak kudeatzeko intentzioarekin sortu da. Egun, 95.000 ha daude haien eskuetan, jabe hauek (ustiategiak) ia 10.000 izatera iristen direlarik. Lehen sektorean bizi den hondamendiaren isla, jabeen % 20ak baino ez ditu 50 urte



“Foru Aldundiak ekimen honetarako gizarte eragileak kontuan hartu dituztela dio, noski, lur-jabeak eta enpresak, ekologistak eta natur kontserbazionistak ez gaude eta, euren agendan”.

NATURKON

**“Foru Aldundiak jauzi
kualitatiboa egin nahi
omen du Basotik
Fundazioarekin,
eta egin du,
baina ez baso
iraunkorraren bidean”**

baino gutxiago, erreleborik ez duen sektorea da, administrazioa hiltzen uzten ari dena, gutxi batzuen mesedetan. Izan ere, argi dago errezeta berria: jabego honen kudeaketa esku publikoetan (esan nahi baita, enpresenetan) utzi.

Hauxe kontu honek eragiten duen lehen galdera: nekazal sindikatuak begi onez ikusten dute hau? Administrazioaren zerbitzari eta subsidiarioak bihurtzea da gaur, baserritarren, abeltzainen, artzainen eta lur-jabeen helburua?

Bigarren galderak ez du garrantzia txikiagoa. Jakinda Aldundiak baldintzatzen duela baso-politika diru-laguntzen bidetik, zilegi da dirua banatzen duen administrazioa izatea diru hori jasoko dutenen kudeatzailea? Merkatu libreko ekonomia-ereduan, ez al da lehia askearen kontrakoa?

Markel Olano Ahalduen nagusiak, ekimena justifikatzeko balorazio politikoa egin zuen. Aldundiak ohitura bihurtu duen eran, hasieratik bukaera, hiztegiaren erabilera interesatu eta okerrarekin herritarrak nahasteko borondatea erakutsi zuen. Gipuzkoan basoen azalera %61ekoa dela esan zuen, dakienean azalera horien gehiengo (gaixorik dauden) zuhaitz-landaketek osatzen dutela. Basoak garrantzitsuak direla esan zuen, “ingurumen ikuspegitik, biodibertsitatearen ikuspegitik

paisaiaren eta lehen sektorearen ikuspegitik, baserritarren ekonomiaren ikuspegitik” eta “aldaketa klimatikoaren kontrako borrokan CO2a xurgatzeko tresna egokia direla”. Hala da, basoak, ez zuhaitz-landaketak. Gurean bezala, monolaborantzan oinarritutako kudeaketa intentsiboa egiten denean, onura horiek guztiak ingurumen-kalteak bihurtzen dira, Jaurilaritzak erakusten dituen biodibertsitateari buruzko txostenek eta Ministerioak neurtzen dituen lur galeren adierazleek erakusten duten bezala.

Larrañagaren hitzetan, Basotik fundazioak, egun, baso-jabeei zaila zaien kudeaketa erraztuko die (azala behar du gero, tramitazio konplexua ezartzearen arduraren duenak zailtasun hori baliatzea bere mesedetarako!). Jabeen gehiengoak azalera txikia duenez, azalera hauek kontzentratuta kudeatuko ditu Aldundiak eta, horrek berak, kudeaketa kolektiboak errentagarritasun handiagoa emango omen du. Ustiategiaren industrializazioa: nola esnearekin, hala haragiarekin, orain egurrarekin. Basoen berreskurapenak ez du horrelakorik eskatzen.

Aldundiak jauzi kualitatiboa egin nahi omen du Fundazio honekin, eta egin du, baina ez baso iraunkor eta jasangarriaren bidean, Olanok esan bezala. Fundazio hau natur kontserbazioaren eta biodibertsitatearen kontrako jauzi kualitatiboa da, beste urrats bat hondamendiarantz.

**NATURKON,
Gipuzkoako natur talde
eta talde ekologistak**

“Sortu ditzagun guztiontzako espazio seguru eta gozamen iturri diren festak”

Festak askatasunez eta gozamenez bizitzeko, jaietaz denok gozatzeko dugun eskubidea aldarrikatu zuten aste hasieran ondoko irudiko herri-tar taldeak, Usurbilgo Udalak eta Kafe Tertulia neska* gazteen talde feministak, egunotan txosnagunea izango den Mikel Laboa plazan deitutako agerraldian. Eta eskubide hau bermatzeko azken asteotan bideratu duten lanketa aurkeztu zuten. Bestela esanda, erasorik gabeko jaien aldeko hiru ekimen iragarri dituzte; batetik, etxez etxe banatu duten sexu erasoaren aurkako gida. “Emakumeek eta LGTBIQ+ kolektiboek jasaten duen eta duten indarkeria ere barnebiltzen da. Gida horretan ikusiko dugu ere indarkeria sexistak milaka aurpegi, ahots, adierazteko forma eta esparru dituela. Ez duela mugarik eta gaur egun eredu kapitalista heteropatriarkalak sortzen dituen pertsonen arteko botere harremanak biziarauteko eta mantentzeko tresna dela. Halaber, sexu erasoak zer den eta zer onarpen sexuala, argiki jasotzen du. Eta mezu argia ematen du; soilik bai da bai”.

Lanketa partekatua

Gidak gaia gurasoek seme-alabekin nola landu ere errazten du. Seme-alabei zer mezu helarazi festetara joan aurretik. “Alaben kasuan hiru mezu azpimarratzen dira. Batetik, erakustea berak nahi duenean eta nahi duenari ezetz esatea posible dela. Bigarrenik, beldurra eragiten duten mezurik



“Gauak eta kaleak gureak direlako eta festak eta egunerokoa ez ditugulako beldurrez bizi nahi, aske baizik. Aske izan nahi dugu, nahi dugunean nahi dugun bezala ibiltzeko, ez dugu ausart izan nahi, ausartak bagara ere”, adierazi zuten aste hasieran Mikel Laboa plazan egin zuten agerraldian.

ERASORIK GABEKO JAIEN ALDE

“Gerta daitezkeen eraso matxisten aurrean eskuhartzeko protokoloa landu dugu”

ez helaraztea, eta hirugarrenik errua alabari ez botatzeko erasoren bat sufritu duela kontatzen badio. Erasorearen ardurara beti dela erasotzailearena, inoiz ez erasoak jasan duenarena”. Semeei helarazitako mezuen garrantzia ere azaleratu nahi izan dute. “Izan ere semeari igortzen dizkiogun mezuak lagun baitetzake jaiak denontzat espazio seguru bihurtzen, eta horretan familiek ere badute ardura, eta

ardura hori azpimarratzen dugu”. Gidarekin batera, “gerta daitezkeen eraso matxisten aurrean eskuhartzeko protokoloa landu dugu”. Lanketa partekatua izan da; protokoloaren lanketa horretan inplikatu baitira Xauxar txosna batzordeko kideak, gazte mugimendua, Jai Batzordea, ostalariak edota udaltzaingoa, Sortzen elkarteak dinamizatu dituen saioetan. “Usurbilen aisialdi edo festa eremuetan gertatzen diren eraso matxisten aurrean eskuhartzeko protokoloa da. Eraso matxisten aurrean nola jardun jasotzen da, esaterako norbaitek erasotua izan dela esan eta laguntza eskatzen badizu edo erasoren baten berri baduzu, nola jokatu zehazten du; nagusiki ez

ezazu epaitu, ez ezazu bakarrik utzi eta ez itzazu erabakiak hartu galdetu gabe. Eraso matxista txosna eremuan edo taberna batean ematen bada, zer egin ere zehazten du protokoloak”.

Festa egunotan ere bi gune egokituko dituzte; Sagardo Egunean egin bezala, sexu erasoaren aurkako Emagin elkartearen gunea egokituko dute uztailaren 1ean (17:00-22:00) eta 2an (17:00-21:00). Eta uztailaren 2tik 3rako parranda gauean (23:00-03:00), Murgibe taldeak Beldur Barik gunea kokatuko du. Honako deia luzatu dute; “norberak erabakiz, guztiok gozatuz, sortu ditzagun guztiontzako espazio seguru eta gozamen iturri diren festak”.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

BONEX
REHABILITACIONES S.L.

ERAIKINAK BIRGAITZEKO ETA HOBEKUNTZA ENERGETIKOAK LORTZEKO SOLUZIOAK

- * Impermeabilizazioak
- * Isolamendu termikoa
- * Teillatuak
- * Mantenimendua
- * Fatxadak

Zubiaurrenea Kalea 3, 20170
Usurbil | Tlf: 625077916
info@bonex.es

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA • ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Uztaileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Etzeko txiki eta gazteak oporretan daude eta zu inbidiatan...

Hileko aholkua: Eskerrak laster Udajolas hasiko den!

**CANCER**

Maitasun asko jasoko duzu hilabete honetan, eta horrek behar duzun laguntza eman go dizu zure buruari jarri dizkiozun erronkei aurre egiteko.

Hileko aholkua: Antolatu urtebetetze festa mundiala!

**LIBRA**

Udara ere ikasteko izan daiteke, bai. Hileko aholkua: UEUk eta JAKINEk San Fermin egunean jardunaldi oso interesgarria prestatu dute Artzabalen.

Hileko aholkua: Eta hamai-ketako ederra ere bai!

**CAPRICORNIUS**

Itsasoarekin kontuz ibili beharko duzu datozen egunetan, istripu bat izateko aukera handia duzu eta.

Hileko aholkua: Kontuz bainujantzia lapurtzen dizuten olatuekin!

**TAURUS**

Sentsibilitatea lantzea ondo etorriko zaizu; azken aldiak zakar samar zabiltza eta.

Hileko aholkua: Haserre edo urduri dagoenean norbait ez iezaiozu esan lasaitzeko!

**LEO**

Hondartzak eta itsasoak bi-lutzen duzun lasaitasuna eta oreka emango dizute.

Hileko aholkua: Baina ez sartu tripa ezagun batekin aurkitzen zaren bakoitzean, bestela akabo bakea!

**SCORPIUS**

Bihotza saltoka jartzen zaizu ikusten duzun bakoitzean, baina ez zara ausartzen.

Hileko aholkua: "Eperrak" kanta elkarrekin dantzatzeko baduzue, zurekin maiteminduko da.

**AQUARIUS**

Kirol pixka bat egiten hastea ez zaizu gaizki etorriko, baina erakartzen dizun kirola aurkitu beharko duzu.

Hileko aholkua: Pentsatu al duzu inoiz festetan buruhandi bezala ateratzea?

**GEMINI**


Santixabeletako maskota zelataria Dema-plazan ikusi duzu eta festak ospatzeko irrikitan zaude dagoeneko.

Hileko aholkua: Gora Santixabelak!

**VIRGO**


Gogoaz zaude oporrak hartzeko, baina azken ahalegin bat egin beharko duzu.

Hileko aholkua: Hala ere, lanera eguzkitako krema emanda joatea gehiegitxo da...

**SAGITARIUS**

Esaerak dio usurbildar bat San Joanetatik San Praixkue-tara festarik festa ibili daitekeela.

Hileko aholkua: Frogatuko duzu hori egia dela?

**PISCIS**

San Ferminak gain-gainean ditugu eta aurten ez duzu hutsik egin nahi. Dagoeneko jantzi txurria eta zapi gorria prest dituzu.

Hileko aholkua: Kontuz ibili ez baduzu "pobre de mí" bukatu nahi.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170
USURBIL

Usurbil Kirol Elkarteak eta Usurbil F.T.-k elkarrekin agurtu dute denboraldia

Urte osoko ahalegin, une eta izerdiak partekatzeak aukera izan dute estreinakoz Usurbil Kirol Elkarteak eta Usurbil F.T.-k, herriko futbol eta eskubaloitaldeek alegia. Denboraldi amaiera batera ospatu zuten ekainaren 25ean. Goizean gaztetxoenen arteko jolasak ospatu zituzten bi klubetako kideek. Eta iluntzean, afari jendetsuaren bueltan bildu ziren frontoian. Sari banaketa batekin borobidu zuten afalostea, eta ondoren, bat baino gehiago izan ziren Kalezarko jaietara igo zirenak.

“Txalotzekoa da bi klubek egindako urratsa”

“Giro bikaina izan genuen Usurbil F.T.-k eta Usurbil



Usurbil F.T.-k eta Usurbil K.E.-k ekainaren 25ean frontoian ospaturiko afaria.

AFARI BATERATUA

“Urte osoko ahalegin, une eta izerdiak partekatzeak aukera izan dute estreinakoz Usurbil K.E.-k eta Usurbil F.T.-k”

K.E.-k elkarrekin antolatutako afarian. Txalotzekoa bi klubek egindako urratsa eta mila es-

ker herriko haur eta gazteek kirol eskaintza aparta izateko egiten duzuen itzelezko lan bolondresagatik. Zein beharrezkoa dugun herrian zuen lana eta ekarpena, izan zuzendaritzaren alorrean, izan entrenatzaile moduan. Bide batez zorionak saritu guztiei!”, adierazi du Usurbilgo alkateak sare sozialen bidez.

Donosti Cup Usurbilen

9-25 urte arteko munduko txoko ezberdinetako futbol taldeak lehia jarriko dituen Donosti Cup ospatuko da hurrengo astelehenetik, uztailaren 4tik aurrera, 30. edizioa aurtun.

Haranen eta Zubietan

Uztailaren 4tik 7ra luzatuko den lehen faseko neurketak besteak beste Usurbilen eta Zubietan ere jokatu dira. Haranen eta Zubietako zelaietan uztailaren 4tik 6ra, goizeko 9:30etan hasi eta azken partida 19:15 aldera jokatu da. Euskal selekzioarekin batera lehiatuko dira, AEB, Madril, Jordania, Frantzia, Japon, Katalunia, Andorra edota Ingalaterrako futbol taldeak. Uztailaren 7tik 9ra amaiera fasea.

Plazan Bazan, 12/13 orrialdeetako soluzioak

ZURIKO eta XAPI

Hona hemen gure bi laguntzaileak: ZURIKO zakurra eta XAPI katua. Bete itzazu sudokuen hutsuneak, bi izenak osatzen dituzten hizkiez (seikoan Z, U, R, I, K eta O, eta lauokan X, A, P eta I). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela letra, zutabe eta arrea bakoitzeko.

ZURIKO

I	U	K	O	Z	R
O	Z	R	K	U	I
U	R	I	Z	O	K
Z	K	O	I	R	U
R	I	Z	U	K	O
K	O	U	R	I	Z

XAPI

X	P	A	I
A	I	X	P
I	X	P	A
P	A	I	X

YNG WAW
WAW HAYNGU WAW
JUFDAWAV ARTAYNG
-BUNAVRUYNGA

Zeeer?! Bide batez, ezaba itzazu WAW, YNG eta JUF guztiak eta zakur-katuak zer esaten ari diren ulertuko duzu.

Handitx txikiak

Ordina itzazu inurri eta modalena hauek, handienetik txikienera, 1etik 7rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienera 7).

Badunk

DOMINOAN

Garaian garaikoa, Domino hau ekainean azoketan ikusiko ditugun sei gaitz egina dago. Honakoak dira: ziazerba edo espinaka, angurria, marrubia, gerezia, brokolia eta piperra. Marraztu hutsunetan falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.

Itzala

Erreka harririk harri igaro nahi duen turista honek zein du itzal zuzena?

Hamahiru

Beno, beno, beno, heri da abere pilal! Eta gidariak ez al dute arriskurik ikusten? Nolanahi dela ere, aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziakoa da. 649 429 416

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentzia da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo

gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² gara-je itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusia, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Puntapax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondo jatetxean. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan

bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

Umeak zaintzeko eta ingelesa irakasteko prest dagoen neska gaztea. Interesatuak: 644 716 739

Adinekoen eta haurren zaintza lana edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Jada umeekin esperientzia badaukat. Interesatuak: 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharberritzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko lan bila nabil. Orduka, gauak edo aste-bukaerak interna moduan aritzeko prestasuna daukat. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. 695 184179/aneseoane@gmail.com

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeko garbiketa lanak egiteko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkatz. 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdutuenak Udaltzaintzari eman daitezke.

24 hazbeteko telebista berria salgai. Erabili gabea. 646 185 716.

**Zorionak Amaiur!**

Zure zazpigarren urtebetetzean egun zoragarria pasatzea opa dizugu. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu, oso harro gaude zutaz, aitatz, amatxo eta lzarren partez".

Heriotzak**Jose Mari Mayoz Pagola**

Ekainaren 22an
hil zen
82 urterekin
Aginagan

**Heriotzak****Miren Aranzadi Manterola**

Ekainaren 25ean
hil zen
89 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 30 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 01 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 02 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 03 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 04 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteartea 05 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 06 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Osteguna 07 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 08 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 09 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 10 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda uztaila

01 ostirala

■ **Santixabel jaiak Usurbilen.** Haur eta gazteen eguna. Egitarauaren xehetasunak, azpiko albistean.

02 larunbata

■ **Santixabel jaiak Usurbilen.** Egitarauaren xehetasunak, azpiko albistean.

03 igandea

■ **Santixabel jaiak Usurbilen.** Helduenen eguna. Egitarauaren xehetasunak, azpiko albistean.

Santixabel jaietako egitaraua, egunez egun

Ekainak 29, asteazkena

■ 16:00 Pala-txapelketa: kirol egokituen erakustaldia eta binakako finala.
■ 18:00 Jaixkipe txaranga, frontoitik abiatua.
■ 19:00 Txupinazoa eta ikurrinaren igoe-
ra, Usurbilgo odol-emaileen eskutik.
Ondoren, erraldoi eta buruhandiak.
■ 20:30 Gazte txupinazoa eta topa txosnetan.
■ 23:30 Ameba, Viafara eta Tzar txosnetan.

Ekainak 30, osteguna

■ 06:00 Oilasko-biltzaileen gosaria eta irteera, txosnetatik abiatuta.
■ 11:00 Gaztetxoentzako III. Kolore Festa.
■ 14:00 Oilasko-biltzaileen itzulera eta bazkaria. Ondoren, jolasak.
■ 17:00 Euskal preso eta iheslarien aldeko trikipotea, txosnetatik abiatuta.
■ 18:00 Orbeldi dantza taldearen saioa.
■ 19:00 Buruhandiak.
■ 19:30 Bertsolariak frontoian: Joanes Illarregi, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga. Gai jartzailea, Amaia Agirre.
■ 20:30 Diskofesta eta karaokea Gaztelekuan, 12-16 urtekoentzat.
■ 22:30 Laket taldea frontoian.
■ 00:30 Bertsio gaua txosnetan.

Uztailak 1, ostirala

■ 09:45 Haur eta gazteei harrera, udaletxean. Zatoz koadrodun zapi urdinarekin!
■ 10:00-14:30 Jolas-parkea, frontoian.



Larunbatean, soka-dantza udaletxe aurrean.

■ 10:00-12:00 Ginkana, LH1etik LH4ra.
■ 10:00-12:00 Erronka LH5etik DBH2ra.
■ 11:00-14:00 Txutxu trenak.
■ 11:00-12:00 Gazte jolasak Artzabalen.
■ 14:00 Gazte-bazkaria txosnetan. Bingo musikatu eta Aztarricup-eko sari banaketa.
■ 14:30 Umeen bazkaria Artzabalen.
■ 15:30-17:30 Gorkamendi Dj Artzabalen.
■ 17:30 Txokolate-jatea Artzabalen.
■ 15:30-17:30 Txutxu trenak.
■ 18:00 Zutik elektrotxaranga.
■ 18:30 Erraldoi eta buruhandiak.
■ 18:30 Herri-kirolak. Herriko bi talde lehian.
■ 23:00 Anje Duhalde frontoian.
■ Jarraian, Perlata eta Skabidean txosnetan.

Uztailak 2, larunbata

■ 09:00 Esnadeia txistulariekin.
■ 12:00 Soka-dantza, udaletxe aurrean. Ondoren, lore eta salda banaketa.
■ 12:00 Preso eta iheslarien eskubideen aldeko kalejira Matraka elektrotxarangarekin.

kin.

■ 14:00 Zikiro-jana, Askatasuna plazan.
■ 17:30 Sokamuturra Udarregin.
■ 18:00 Tik Tara taldea txosnetan.
■ 18:30 Erraldoi eta buruhandiak.
■ 19:30 Laskotxaranga.
■ 23:00 Odolaren Mintzoa, Skasti frontoian.
■ Ondoren, Kristonak, Rukula eta Dj Kixo.

Uztailak 3, igandea

■ 06:30 Elektroenzefalogramo elektrotxaranga.
■ 09:00 Gaupaseroen argazkia.
■ 11:00-13:00 Toka-txapelketa eta Santixabel Igel Jokoa, Artzabalen.
■ 11:00-13:00 Puzgarriak: ikastolan, udaletxe aurrean eta Askatasuna plazan.
■ 12:30 Usurbilgo joaldunak.
■ 14:00 Jubilatuen bazkaria Atxegan.
■ 16:00 Mus txapelketa txosnetan (15:30-16:00 izen-ematea).
■ 16:00-18:30 Puzgarriak: ikastolan, udaletxe aurrean eta Askatasuna plazan.
■ 17:00 Esku-pilota txapelketako finalak.
■ 18:00 Usurbilgo runba, bachata dantza taldearen emanaldi irekia Artzabalen.
■ 18:30 Buruhandiak.
■ 19:00 Paella jana txosnetan.
■ 19:00 Puro Relajo taldea Artzabalen.
■ 23:00 Amaiera emanaldia eta traka.
■ 00:30 Silitia taldea txosnetan. Ondoren, karaoke moztortua txosnetan.



SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2022

Kimaketa
praktikak
bertako
sagastietan
egingo dira!

Uztailak 8, OSTIRALA
FRUITU ARBOLEN UDAKO EDO
BEGIKO TXERTAKETA
Josu Osa

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenean



SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman eta
alkartasuna.eus web orrian.



6€ ORDAINDU ETA 10€ GASTATU

Urbil BONOAK

BEHERAPENAK



**Guztira 2.000 bono daude.
Ez zaitez gabe gelditu!**

NOLA LORTU URBILBONOAK?

1. Urbileko Bezeroarentzako Arreta Gunean zure doako Urbil App-eko identifikazio kodea erakutsiz. Baita ere, urbil.es web orritik eskuratzeko aukera izango duzu.
2. 10€-ko bonoak eros ditzakezu 6€-ren truke, Urbileko dendetan kontsumitzeko. Kontsumitzaile bakoitzak 2 Urbilbono erosi ahal izango ditu gehienez.
3. Erabili zure UrbilBONOAK uztailaren 31ra arte.

BEZEROENTZAKO ARRETA GUNEAREN ORDUTEGIA

Astelehenetik larunbatera,
11:00etatik 14:30era eta
16:30etik 20:30era.

Kontsultatu lokalak eta informazio gehiago www.urbil.es -en.

BLOG



urbil.es